

**JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOA ARTZA FRONTOIAN DAGOEN
TABERNAREN OBRA EGIN, USTIATU ETA MANTENTZEAREN BIDEZ EMATEA
ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA**

1.- Xedea

Administrazio-emakida honen bidez, jabari publikoko erabilera pribatiboa lortu nahi da, Bermeoko Artza Frontoian dagoen eta Udal Inbentarioan inskribatuta dagoen tabernaren obra egin, ustiatu eta mantentzeko, Administrazio Klausula Berezien Agirian eta Agindu Teknikoen Agiri honetan ezarritakoaren arabera.

Higiezin horrek ez du kargarik. Administrazio emakidaren xedeko ondasun higiezinak jabari ondasuntzat hartzen da.

Emakida "jabetza-eskubidea" salbu eta hirugarrenei kalterik egin gabe emango da, Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduak ezartzen duen bezala.

2.- Eraikuntza-memoria

Emakidadunaren esku jartzen da Artza frontoiko taberna, eraikuntza ezaugarri hauei jarraikiz:

Higiezinak Artza frontoian eraikinean kokatzen da eta, exekutatu beharreko obra proiektuaren arabera, 72,78 13 m²-ko azalera du. Bermeoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrarekin bat, hiri lurzoruan dago, kalifikazioa kiroletako ekipamendua eta ekipamendu soziokulturala da, eta HAPOaren 3.5.1. artikulua arabera, "IV.d) Erabilera sozio kulturalak" atalean sartuta daude jatetxeak, tabernak eta kafetegiak.

Erabilera: Ostalaritza (3. Katgoria) zerbitzua.

Tabernaren azalera okupatzeko eskubidea, emango zaio esleipendunari baina ez gehiago.

Terraza ipini nahi izatekotan, higiezinaren kokapena kontutan izanda, onarpen hori egiteko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren baimena eskuratu beharko da.

Ondasun higiezinak kontzesioan ematen da, kidego ziburra eta bakarra den aldetik, egungo zatiketa fisikoaren eta egoera orokorraren arabera, inskribatutako edo inskribatu gabeko erregistroko deskripzioaren kalterik gabe.

3.- Egin beharreko jardueraren deskribapena

Ustiapen hori emateko, Udalak emakidadunari lagako dio dagokion jabari publikoko ondasunaren erabilera pribatiboa. Ondasun horren titulartasuna administrazioari dagokio, eta Ostalaritzako 3. Kategoriari dagozkion jarduerak garatzeko baino ez da erabiliko.

Hala ere, ostalaritzako ustiapenarekin hasi baino lehen, esleipendunak espedientearen agertzen den obra proiektua exekutatu beharko du urtebeteko epean. Eta jarduera zabaldu aurretik, egokia den jarduera lizentzia eskuratu beharko du.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E80010826000X7A1S7LV4N8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARITZAKO AOT - 05/08/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/08/2024
12:19:47

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0227
Data: 23/09/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E80010826000X7A1S7LV4N8



Edozein kasutan, jarduera 18 hilabeteko epean egon beharko du funtzionamendu osoan eta, epe horretan atzeratzeak, ez du eraginik izango emakidaren iraupen epean, atzerapen horregatik ipini ahal izango diren zigorren kalterik gabe.

4.- Okupatu beharreko jabari publikoko zatiaren balorazioa

Inbentarioan dauden datuen arabera, higiezinaren balorazioa 64.204,54 eurokoa da.

5.- Ingurumen kalifikazioa eta irekiera

Emakidadunak, lokalaren ustiapenean, ingurumena babesteko behar diren aginduak bete beharko ditu, araudi aplikagarrian jasotakoak, bai eta emisioen muga-balioak eta prebentzio-, kontrol- edo berme-neurriak ere. Era berean, jarduera hasi aurretik, esleipendunak jarduera hasi aurreko jakinarazpena jaso beharko du Udaletik, Ordenantzan aurreikusitako moduan.

6.- Ustiapenaren baldintza bereziak

- Taberna frontoiaren barruan kokatzen denez, Kirolean biolentzia, arrazakeri, xenofobia eta tolerantzia ezaren aurkako 19/2007 Legearen 4. artikuluan xedatutakoarekin bat, frontoian kirol ekintzak dauden bitartean, ezingo zaizkie alkoholdun edaririk saldu ekintzaren ikusleei ezta parte hartzaileei.

- Era berean, kokapena kontuan izanda, esleipendunak lan hauek egin beharko ditu, baita taberna itxita dagoenean ere:

- Kantxa zabaldu eta itxi beharrezkoa den guztietan eta zehaztutako ordutegiaren arabera.
- Tabernako komunak zabalik izatea, zehaztutako ordutegiaren arabera.
- Dutzak erabiltzeko frontoia zabaldu, zehaztutako ordutegiaren arabera.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E80010826000X7A1S7L7V4N8

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-IDAZKARITZAKO AOT - 05/08/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/08/2024
12:19:47

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0227

Fecha: 23/09/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E80010826000X7A1S7L7V4N8

